


2. OMEN





def. omen: "Hiztunak, aditzera ematen duenaren berri, entzunez —ez ikusiz— jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula”.

Zerbait egin omen dugu. Zerbait egin genuen. Fenomeno baten bigarren fasea agortzeke dagoeneko hau idatzita. Energia ez da agortzen, eraldatu besterik ez da egiten -dio ez dakit nork—. Behetik erauzi zitekeen guztia, norbait izatearekin batera, jada emantzat dago honetan. Jarraipena da omen honen minimoa, zerbait esateko kuota irabaztea maximoa.

Ikusiz jakin izan bazenu, zerbait esatea ere edukiko zenuke. Aditzera eraman nahi dena ekintzaren aditza darama gainean: aditzearena. Hiztunak du bere partikula mugen baitan zer edo zer esatea, zerbait esan nahi izatea. Airean galdutako partikula txikiak izan ez daitezten, baina norbaiten arnasbideak har ditzan, zer egin behar? Ez da galdera erretorikoa.

Negartutakoak negartuta, ertzaren abolizioaren alde gaude orain. Hori erreformatzen zabilzatenok, margen marginatu delako batean, yasta. HeGemonia euskaltzaindistiko-elhuyariano-elkartasuniko-berriatzale

honetan, zapalduetatik zapalduenak, zuek:

Ikusi dugu pareta eta hortik jatekoa edukita ere (ez dela kasua), emango ligukeen kolpeak ez du merezi. Hormaren aurrean, omenaldi bat ez egoteari.

Esfortzuei erantzun diegu, indarren aurrean ez dugu erreakziorik jaso; Newton ez dago ados.

Behe Banda



Aulkiak esertzeko ez direnean

Zer sortu dezakegu gutako bakoitzak hari berdinetik?

Non gerturatzen gara, noiz urrundu?


AULKIAK ESERTZEKO EZ DIRENEAN

Aulkiak esertzeko ez direnean ere beste edozer hartu eta eseriko nintzateke altxatzeko aukera beti hor delarik beldurtzen nauen guztiak eutsita.

Etzan nahi dudanean ere aulki bat imajinatzen dut, eta gutxi eseritze honetan erdizka etzaten naiz behar ez lukeen denbora luze batean.

Zuk milaka aukera dituzula buruan oinak norabiderik gabe lurra noiz hasi eta bukatzen den galdezka zabilta ipurdi posizio aukera guztiei begira: Eseri itxaron bitartean, altxa eutsi nekatzen zarela





ez ikusiarena egitean.
Eserleku bat ez denean
zuloetan esertzen da jendea
bere burua ezkutatzeko
ikusezinak diren aulkien hankek
nahiko eutsiko balute bezala.

Paretaren aurka ere eseriko bagina
hankak nire aulkia
eta zapaldu ere ez genuke behar.

Orain aulkiak bata bestaren gainean jasota
pilare domino hauskorak osatuta
ezin enkajatzeko soilak eraikiko balu bezala.

Eraikin oso bat eutsi
bere altxaera guztia oztopatu
egin dezake aulki batek
besteekin den heinean.

Gurpildun aulki erren batek ere
arrastaka eraman dezake mundu oso bat.

Gudu-zelai
itxarongela baino
Su-hiltzaileen dorrea

parlamentu bat baino.

Aulki mota ugari

saltoki handietan:

epaile bat elektrokutatuko nuke masaje ofizina batean.

Irati Oskoz



EZ DENA

azken aldian gauzak ez dira zirena,
korrika noa amets gaizto batean bezala,
baina geldo,
txikitan igerilekuan korrika egiten saiatzen zinenean
bezala,
eta iada ez ditut 10 ordu egiten lo.

zerrendaz beteak ditut burmuin eta burezur arteko
paretak:

aulkiaren gainean daudenak:

kuleroak, kamisetak eta pare bat betaurreko.

aulkian utzi behar ditudanak:

azpimarratu gabeko apunteak, azpimarratutako liburua
eta bolaluma beltza.

gelatik irtenda ere aulkian jarraituko dutenak:

bete gabeko formularioa, erdi irakurritako bi panfletoak
eta gustoko ez dudan kandela.

egitekoz beteta izan nahiko nuke agenda,

letra larriz benetan garrantzitsuak direnak,

eta azkar idatzita agian egingo ditudanak.

inoiz iristen ez naizen sentsazioak kausa edukitze aldera.

baina eserita nago,
aulki bat ez den tramankulu batean,
hankak eta besoak elkarlotuta,
eskuan pantaila erraldoi bat
eta begiak parez pare irekita.

Ozenegi entzuten diren taupadak
kotxe baten burrunbak estal ditzan nahi nuke
barruko ahotsek zeinu hizkuntzan egiteak lasaituko
ninduke.

aulkiak esertzeko izateari utzi dioten honetan,
kalean behera ikusten dira soberako aulkiak,
eta zutik baina geldi nago,
datorkidanarengandik ihes egiteko akituta.

Irati Fdz. de Okariz Irureta



MINGAIN URDINDUAK

absurduaz galdetzen badidazu
erantzungo dizut
absurdua dela
mingain urdinu bat
aitonaren ahoan

helduek esan zidaten galera zela
autopista luze batean
leihatila apurka-apurka jaitsi
eta zigarrokinak erortzen uztea

helduek esan zidaten galera zela
gerra diskretu bat norberaren aurka
gerra bat zauririk gabe zulatzen zaituena

helduek esan zidaten galera zela
esertzeko ez den egurrezko aulki bat
sukalde ertzean
absentzia baten oroigarri

baina ahaztu zitzaaien nonbait
haurrek ezer gutxi entenditzen dutela
autopistez
zigarroez

eta gerraz

ez ditut ulertu beraz
larruazal izoztu
bularralde estatiko
eta amaren masailezur bustiak

eta absurduaz galdetzen badidazu
erantzungo dizut
absurdua dela
mingain urdindu bat
aitonaren ahoan

Maddi Agirre Epelde

AULKIAK ESERTZEKO EZ DIRENEAN

Agur esatea omenaldia da ez egoteari,
malkoz bustitzea gutun bateko azken hitzak:
Adeitasunez, Ni

Telefono deia amaitzen deneko hotsa
bezain ezaguterra zait
zapata zolek zoladuran egiten duteneko.
Korrika egitea inor atzetik ez duzunean
koldarkeria hutsa da.


Ihesaren arkitektura ez da gauza makala
atzean utzitako hura
dena delakoa izanda ere
etxe izan ei da-eta.
Solairu, eskailera, horma eta guzti.

Eta beste behin aurrera egitean so
ez dagoenaren oihartzuna
anker samarra gertatzen zait.
Gehienbat adioek
uhin soil gisan
hormen aurka eztanda egiten dutenean.



Aulkiak esertzeko ez direnean
mahai inguruan tentuz antolaturiko simetria
hankamotz geratu egiten da.
Ertz batetik bestera hitz egiteko oihuka hasi behar izatea
bada,
argi dago,
energia galera larregizkoa.

Harri Diaz de Heredia Matanzas





IRAILAK 22

SMS bat, zer den ez dakizun horietakoa. Osakidetzako zita bat akaso, edo hauteskundeetan mahaiko presidentea izan beharko zarela esaten dizuten horietakoa.

“Jakinarazten dizugu datozen egunetan jakinarazpen bat jasoko duzula”

Beste baten, “bidali dizute notifikazioren bat?” atzetik.

Iritsiko zaidan gutunaren misterioa argituta, dena ilundu.

Irailak 22, aulkian esertzea baino lurrean nahiago izan nuen eguna. Asfalto gordina ipurdiz estali zena, eta barroteak katez.

64 begi begira, 32 eskeleto arrotz. Argi urdinez babestuta urduritasuna usainduz.

“Seras sancionada” batekin amaitu zena. Amaiera iritsi gabe.

Aulkian eserita seko geratu naiz. Zurrun. Mugitu ezinik. Sinestu ezinik.

2.500€. Altuan esan dut, behin eta berriz, gauzak askotan esaten direnean sinesten direlako.

Itotzeko beste modu bat, lehen kartzela ta orain kartera.

“Datozen egunetan”. Asteak gutunaren zain, ez baitakite oso ondo neurtzen denboraren joana.

Etxean zelan kontatu jakiteko. Modurik zuzenena aukeratzea onena. Aulkian eseri eta “Ama, gogoratzen irailan egin nuen hura? Iritsi da” Erantzunaren beldurra presente zegoen bitartean.

“Diru bilketa, gauzak ez dira aldatzen” erantzunak lasaitu zuen nire barrua.

Azkenean iritsi da eguna, herritarren segurtasuna urratzearen ordaina.

Helmugara iritsi gabe bidean jarraitzen dugu oraindik.

Epaitegiko aulkian eseri beharko naiz hurrengoan, baina oraingoz asfalto gordinean esertzen jarraitzeko asmoa daukat.

Irati Larrañaga Etxebarria



Amen: zertan sinetsi

Sinesmenez eta sinesteaz.

AMEN: ZERTAN SINETSI

ez naiz ahoa irekitzeko gai
galdera baino erantzun sinpleagoa denean
ez bat mihi puntan
“seguru ezetz?”
berriz galdetzean irentsi dudana
hautsitako bonbilen argipean
zain
marraztutako zuzenkia
baldosa gainean argiegi ikusten dena
sartuko dudan
edo duen
bonbo ta kaxa artean
zisternaren tantekin kontratenpoan
La Gasolina kantatzeko gogoak uxatuko nauelako
baina isiltasuna gailendu da
ta zuzen begira dauzkadan begiei uko egiteko indarrak
desagertu dira
lehena izango zela esatetik
azkena izango delako esperoan

zerbaiti eskean
erreguka
amenka
sinestu beharreko gezurretan murgildurik
(barruraino sartu)
zertan sinetsi?
neure buruan ere sinisteko gai ez banaiz

Irati Larrañaga Etxebarria



ERREZUAK ARRATE IRRATIAN

Arratsaldeko zazpitan
kanpaiek
dilin-dalan, dilin-dalan.
Arrate Irratia piztu du amamak
sukalde zuloan.

Hasi da saminduen poesia.

*...emaiguzu gaur egun honetako ogia,
barkatu gure zorrak,
guk ere gure zordunei
barkatzen diegunez gero...*

Dilin-dalan, dilin-dalan.

Galeraren sasi-aukerak esnatu izan nau
gaueko ordu handietan.
Infernuan
zer izan daitekeen
galdetzen diogu geure buruari.
Zeruan,
noiz arte.

Dilin-dalan, dilin-dalan.

Eta horregatik agian,

eskua eusteari utzi eta
“izan gaitezen aske”
oihukatu zenidanean
(dei baten bederatzigarren minutuan),
sinpleki,
arrazionalki,
automatikoki,
egin nizun jaramon.
Masailezurak lehor.

Dilin-dalan, dilin-dalan.

Zalantzaz eta erneguz
elikatu dutena
gustora erortzen baita
lehen bultzadaren inertziaz.
Baina lurrak berdin apurtzen gaitu.
Kontua da nork jo duen,
eta nork ez.

Dilin-dalan, dilin-dalan.

Ez galdetu arren
zertan sinesten dudan
...*baina atera gaitzazu gaitzetik.*
Amen.

Maddi Agirre Epelde



BADUT ZERTAN SINETSI

behatzetan zintzilik, dilindalanka,
urreak dizdira egiten dizu azalean.
badago zerbait zimurren artean.

eskuz landutako kate fina,
eta ispilutxo itxurako objektu,
fedea gotorleku.

nola eraman beste norbait gainean,
lepoan gramo bat, gramo bi,
bide zuzenean zelatari.

azal eta metal bat eginda,
paparrean lo daukazu, bare,
zu lotaratu arte.

gaur egungo gazte sufrituok
sakeleko horma papera eskeini besterik ez dugu
minutu bakoitza igarotzean eta hurrengoa etortzean,
gogoan izateak zerbait aldatuko balu bezala.

zerutiar izakiek gugan inoiz eraginik ez badute,
nola azal diezaioket amonari nik ere sinisten dudala.

sakeleko horma paperean, hormetako paperetan,
bertan diraute ez atzo, ez gaur, baizik eta bihar ereiteko
ditugun
sinismen guztiak.

zure bi begiek bereak bilatuz
nik zureak:
birjinen samurtasunean aterpe.

argazkietan nabigatuz
zurea hautatu:
oroitzapenak ipar

lepoko bat besterik ez balitz,
ba al genuke zertan sinetsi

Irati Fdz. de Okariz Irureta

AMEN: ZERTAN SINETSI

eufemismoz lerratzea
miseria kudeatzearena
eskuetan bizitza,
pietatea.

kate formako ezpatak
hil-kutxa irekitzean
testigu guztiak
entregatzea.

paretak pareta hartzea
zoruarekin gurutzatzean
bulegoko lanera
ezin sartzea.

azpitestuko gidoia
metroko barrikadak
zerbitzu minimoetan
lur ematea.

doinu telefonikoa
goizean iratzartzea
jainkoa atejoka
enkarnatzea.



frenetismo pausatuan
horrela dio doinuak:
teista ez,
marxista
izatea.

Irati Oskoz



AMEN: ZERTAN SINETSI

Gaztainondoak zimeltzen hasiak dira
orbela da alegiazkoa
malko bi eta barbarik ez
zorua ortzemugan.
Pauso bat bakarrik
edo pauso bat behintzat
udazkena zaharkitua gertatu da.



Urratsez zikintzen dut herriko plaza
plaza ei den hura
ez dut jaun-hartzea egin
adio esatea ere bekatu bada
*“Ave María purísima
sin pecado concebida”*
Kanpaia hostu zuten
eta atabakak hosk egin dit.

Sermoia lar da luzea
arerioak abesten badu
arrotza dira zorua
nahiz zerua
marmolezkoak izanagatik.

Zurak hoztu dizkit
hezur muinak
zainak
odol jarioa eten zait
bularra larrutua
hau al da hamarrena?

Agur t'ardi

beirate zulatutik
zikoinaren orroa dantzut
arrautzak erruten ditu
saiak lapurtuko ez dituelakoan
baina sarraskijaleak zarete
eliza inguruan
zein barruan
zabiltzaten putreok.

Ehortzi bezate
lehenbailehen
malkoak ostendu baitzaizkit.
Adio esatea ere bekatu bada
nik ez dut inoiz jakin zertan sinetsi.

Harri Diaz de Heredia Matanzas



Diskonfort zona

*Gu geu bihur gaitezen gure etsai okerrena,
elkarrekiko kabroiak izan gaitezen.*

GU

*Idatz iezaiozu gutun bat zeure buruari, baina zu ez zara
zu, etorkizuneko zeure burua zara eta iraganekoari
idatzi behar diozu*

Kaixo ni:

Zu natzaizu, beno, ni edo baliteke hura. Zu zara eta da, ginen baita ere banaiz. Eta orain, gaur, hobeto esanda bihar, hitz hauek idazten dizkizut, garen eta izango zaren hortaz, izan ginenaz ihes.

Gogoan dituzu kafe luzeak eta patata tortilla hotzak: hura ere oroitzapen bihurtzeko zain pasa zenituen segunduak. Hiraeth premonitorioan, saudade planifikatuan eta morriña desiratuan gatibu, iraganaren girgiluak eskumuturretan. Kantuek *oroituko duzun hori gertatu zena baino ederragoa dela beti* erakutsi zizuten,

baina ez zara inoiz ikasle prestua izan. Atzerrian bizi den horren herrimenez bizi dituzu lehenaldiko perpausak. Ezin oinak lur umelean ondoratzeaz gozatu, ezin.

Ni zutaz eta gutaz gogoratzen naiz egunero, eta amorruz marrazten ditut hizki hauek, zu gutaz inoiz oroitzen ez zarenez gero. Oraindik ez den eta agian inoiz izango ez den horri begirada txiki bat ere ez diozu botatzen, eta orduan, gu, haiek, hurruneakoak, bihurtzen gara:

- Haiek, kale izkinan dauden haiek.
- Haiek, ofizina beige bateko teklatuari hautsa ateratzen dioten haiek.
- Haiek, auzoko zinemako 3. aretoan thrillerraren emisioan eskuak ukitu dituzten haiek.
- Haiek, milaka gorputzen artean unisonoan kantatzen duten haiek.

Haiek baina inoiz ez gu.


Inoiz nekatuko al gara ginenaz? Inoiz ahaztuko dugu bizi izan genuena, ahaztu edo desitxuratu. Nostalgia su emateaz hitz egin nahi nizuke, pasako dizut artikuluren bat edo.

Eta eskolan ondo ikasitako gutunaren forma formalaz ere oroitzen zaren garen eta direnez, ezin agur

gabe utzi ginena. Azkena izan da gutun hau, norabide
bakarrean gertatutako harreman epistolar honen azkena.

Hurrengo urteko eguzki berriari idatzi nahi diot.
Izango garena besterik ez zaigu gelditzen.

Urruneko, zu
Gertuko ni.



Irati Fdz. de Okariz Irureta



KRISK KRASK

Irudian ez dagoen horretaz hitz egin, ez dagoen horrek kontatuko digu istorioa.

“Krisk krask” ozenak ez du gelako armonia apurtu. Gaur gaueko hirugarren edalontzia da. Lehengoa, urez beteta zegoen, mantelarentzat esker onekoa; baina, bigarrena, tradizioz arrakalatzten den ardo beltz kopa dotorea. Hirugarrena, gaur gaueko Idoiaren lehen “orgasmoa” izan da. Sinfonia hau entzuten den bitartean, Amaia, inportako ez balio bezala, bere etxea ez balitz bezala, katuarekin dago etzanda begirada galdua duelarik. Idoiak, Aimar eta Peppek ez baitakite haien azken afaria izango dela etxe horretan; edo denboraldi batean, Amaiaren edozein etxetan. Datorren astean, Amaia Zumalakarregi kaleko 15. portalera itzuli beharko baita, panpina guztien artean ezkutatuta dagoen ohean lo egitera. Bost hilabete dira lanetik bota zutela eta bere kurrikulumak ezin izan du inor konbentzitu. Hogeita hamabi urte bete berri ditu orain dela hilabete eta ezin du bere burua imaginatu berriz ere gurasoekin bizitzen. RGI-a eskatzeko prozesua martxan dago, baina ez da garaiz iritsiko, eta berriz ere hamazortzi urte dituela sentituko du berriro da hogeita hamabi dituela ahaztuta. Eta hamazortzi urte zituenean bezala, Idoia, Aimar eta

Peperekin dago afaltzen martitzen gauez, isiltasunari lekurik egin nahi ez dion saltsan. Hainbeste zarata, eta kontu serio bat ere ez dute aipatu gau osoan zehar; lehen kriantza botilarekin Idoiaren ahizparen mutilagun berria kritikatu, bigarreanean Peperen izebaren miopia kentzeko ebakuntzaren zehaztasunak ezagutu eta hirugarrena amaitzear daudela gora eta behera dabilta betiko eztabaida berdinean: Txakolina Bizkaitarra edo Gipuzkoarra. Hamabost urte daramatzate kuadrilan batera, eta beti iristen dira debate berberera hiru ardo botila edo bi kafe hartuta, elkarri zer kontatu ez balute bezala. Bost hilabetetan, Amaiak ez die esan lanetik bota dutela; hala gertatu zen duela bost urte ere, Peperi mutilak gustatzen zitzaizkiola *tinderren* Aimarren lehengusuarekin *match* egin zuelako jakin baitzuten. Saiatu zen kontatzen duela hilabeteko bazkalostean, baina horren ordez osabaren melenaren turkiako bidaiaz hitz egitea baino ez zuen lortu. Beste behin, Aimarren amaren hirugarren ezkontzaren berriak bete zuen aitortzarako unea. Amore eman aurretik egin zuen azken saiakeran Idoiaren atzamarrak labanarekin topo egitea erabaki zuen. Edo guzti horri egozten dio Amaiak kontatu ez izatea, ez baitio bere buruari egia aitortu nahi. Haiena kuadrila izenaz definitu ohi den 4 laguneko taldea baita; elkarrekin egoten dira astero: ostiraletan kañaka, larunbatetan mendira akaso eta asteartetako

bazkalosteko kafea ez dadila falta. Edonork esango luke
elkarren bizitza osoa goitik behera dakitela, haiek ere
hala pentsa lezakete, baina ez da horrela.

Irati Larrañaga Etxebarria




APATX LURPERATUEZ

Idatz ezazu istorio bat euskal mitologia abiapuntutzat baliatuz errealismo magiko generokoa. Formatua, edozein, bestea nahikoa lan da.

Sakelekoa zorura bota dut zarata egiten hasi denean. Jasangaitzak zaizkit bere oihuak, nire barnean oihartzuna eragiten dute. Akitu da gaua eta hasi da, enegarrenez, egun berri bat. Kafetera prestatu dut, italiarra, amak egiten zuen antzera, kafea goraino eta ostera koiarakadatxo bat atxikoria. Nespresso kapsula makina oparitu zidaten iaz, baina ez dut gustoko, egunkarian irakurri nuen ez dela oso ekologikoa eta nahiago dut saihestu. Kolonbiatik ekartzen didaten kafea askoz ekologikoa bailitzan... Tira, egin dezakedana egiten dut.

Behi esnea edateari ere utzi nion, olozko edaria erosten dut orain. Garestia da eta ez zait batere gustatzen kafeaz nahastean, baina hobea delakoan trago batez edaten dut irakiten dagoen kafesnea. Zalantzak, ezinegonak eta bestelako buruhausteak kafeaz batera irensten ditut ere. Kafesnea esan diezaiokedan ere zalantzan jartzen dut, olo edaria esan behar zaio eta ez esne, ez delako animalia baten produktua. Kafedaria, orduan. Zein demontre ibiliko da esnetasunaz hausnartzen, jakin badaiteke.



Jantzi ere hala jantzi naiz, larruzkoa ez den larruzko jaka eta merkadilloan erosiriko "Calvin Glein" direlakoekin. Dena egiten dut hankamotz. Ordulariak 7:45 jotzen duenean ateratzen naiz etxetik. Ez da egia. Beno bai, baina ez. Ez dut ordularirik, mugikorrean begiratzen dut beti ordua. Eta ez naiz inoiz puntual ateratzen etxetik. Ordularia erosi nuen horrek puntualago bihurtuko ninduelakoan eta orain mesanotxean dago, usteltzen. Gaur ere berandu noa.

Korrika batean portaleko atea itxi eta eguneroko galdera berbera okurritu zait: Argi denak amatatu al ditut? Eta erantzuna baizkoa delakoan nire bideari eusten diot. Karrika gora eta behera, ezker eta eskuma, auzoko txarkuteroa eta okina agurtu eta metro ahora sartzen naiz. Olo-esne ez baina metro-aho bai, hortzak balitu bederen ikusiko nuke antzekotasunik. Korrika jaisten ditut eskailerak ez dezadan trena galdu. Eta galtzen dut, noski.

Geltokiko zoruan "*Mind the gap between the train and the platform*" ipintzen duen nasa luzeak gaur soro baten antza du. Hatzamarrekin laztantzen dut zoladura hotza, udaberriko soro baten antzekoa da. Zapatak atoa askatu eta ortozik ibili naiz, geltokian gora eta geltokian behera, belarra behatz artean. Lorerik ez da, bitxia gero. Joder.

Gorotza zapaldu dut. Edo txiklea, ez nago ziur. Garbitu dut, hala nola, nire oin planta biluzia eta goruntz begiratu dut. Ez dago bankurik gaur geltokian, harroka batzuk ez besterik. Bertan eseri naiz, trena heltzearen zain. Hormetako publizitate kartelak ezin ditut argitasunez irakurri ere ez.

Lainotuta dago metro geltokia, argi izpirik ere ez da sartzen. Horregatik izango da inguruan ditudanak muturtuta daudela. Etzanda nago zero-sabaiari begira, minutuak horrela azkarrago pasako direlakoan. Eskuez laztantzen ditut arrokak, belarrak, eta ez dauden lorak ere bai. Hau ez da basoa behintzat. Burdin hotsak datoz urrunean, nire bila, eta eraman nazaten altxatu naiz, azkar demonio.

Zuriak dira ingurukoak, txima luze kizkurreko printze eta printzesa albinoak. Bada han eta hemen beltza denik eta inguruan deus ez duela, begirada ankerretaz ostendu egiten da. Ez beza inork ikus. Metro geltokiko artzain txakurrak atzean ditu, hiru begiradaz iltzatu dute alegiazko gurutzean. "*In nómine Patris et Filī et Spīritus Sancti*". Metala dute gustoko txakur horiek, haren burrunbak babesten omen ditu ezerezaz. Besteok jaramonik ez, heldu da trena.

Ateak nire aurrean ireki dira eta atoa sartu naiz albokoa zertxobait bultzatuz, eserlekuren bat libre izanen delakoan. Andra erren bat zutik, toki bakarra libre, eta motxila bat bertan. "*Anda, no me jodas*". Eta abiadura harrigarritz utzi dugu atzean larre bitxi hura. Bagoi berebean goaz gu, otso bi eta zazpi letxuga. Ez daukat asmakizunetarako astirik.

Arnasesuka entzuten ditut batzuk, xuxurlatzen besteak, bada negar egiten duenik ere. Beste denak balaka, orkestra aspergarrietan aspergarriena, jendartearen erreberberazio hutsa. Arkume baten irribarreak ere lar iruditzen zaizkit kursiak. Akaso goizeko nire umore txarrak baldintzatzen du hau dena.

Ohartu orduko helmugara ailegatzean irteerako kasillan nagoelako susmoa dut. Belarra eta arroka ugari, berdin-berdinak. Atzean uzten ditut bagoiko kide, arerioak eta niri zegokidan metro karratu erdia. Hori bai, hemen eguzkiak zuzen-zuzen jotzen dit, izerdi patsetan nago. Ene bizitza begien aurretik ikusten pasatzen ikusi dut. Tori, topikazoa. Eta kaput.

Haize leunak aurpegia miazkatu dit, eta izerdi putzuan nagoela somatu dut. Udara heldu da antza denez, eta ez nengoen prest. Ez naiz inoiz prest egoten, ezertarako ere

ez. Goizeko kafedariari hobe nion izotz bi bota. Aurrean gizaki zahar bat, betaurreko boribil eta begi erraldoiez, tentuz niri begira. Hain da erraldoia bere irribarrea ezen bere hortzetan ere dantza egin dezakedan. Eskuan artazi bat, erraldoia. Abiadura harrigarriaz hurbildu dit eta artilea mutiltzen hasi zait. "Baduzu edatea jakiteko ezin dela egunotan ile-mataza honekin inora joan, motel". Begirada konplizeaz begiratu dut, barre algarak eztanda egin du nire aurpegi parean.

Amonak esaten zidan aspaldi ez genuela hainbeste ile, baina ez-dakit-nori ongi zetorkiola eta ez-dakit-nola lortu duela orain gu hankadun harilak izan gaitezen. Ez niri ezer itaundu, ni ez naiz biologoa, bulegaria besterik ez naiz.

Apatxak zoruan jarri eta abiadura handian igaro dut soro hura, ostertzean dagoen eguzkiari jarraiki. Luzea da bidea helmuga gertu somatzen denean eta geroz eta gutxiago dira nire parean doazenak. Artzain txakurrak ere nire albo banatan ikusten ditut, ahopeka gauza ugari esanez. Metala gustoko dute, esan al dut dagoeneko? Korrika hasten naiz orain, argia lehenago helduko delakoan. Eguzkiak zuzenean jotzen dit aurpegian.

Tunelaren amaierara gerturatzean bakarrik nagoela somatzen dut. Ehunka ginen duela segundu bat eta bidean gelditu dira denak. Txikiak, handiak, bai eta mutur beltzdunak ere bai. Baina xede bat dudala irteerara abiatu egiten naiz. Metro ahoak bota nau, liztua bainintzan. Eta egunero zapaltzen dudan kale hartan agertu naiz. Berriro baina ez betiko legez.

Ahoan dudan zapore gazi-gozoa garbitzeko kafedari bat eskatzen dut betiko tabernan, baina ezin irentsi barnean burrunbaka dudan galdera:

Jakingo al dugu inoiz ardiok tartaloren koba identifikatzen?

Harri Diaz de Heredia Matanzas



DISKONFORT ZONA

Idatz ezazu bi pertsonen arteko elkarrizketa, kanpo narratzailerik gabea. Antzeman dadila zerbait, esplizituki esaten ez dena.

Kattalin: Kaixo, Ane! Zelan?

Ane: Kaixo! Hortxe gabilta... Zu ondo?

Kattalin: Bai, nahiko pozik. Zertan ibili zara azkenaldian?

Ane: Ba lanean gehienbat. Astia dudanean Netflixen zeozer ikusten dut, baina ezer handirik ez...

Kattalin: Bai, ni ere lanpetuta ibili naiz oso, hurrek kokoteraino naukate eskolan, geroz eta okerrago datoz. Serierik gomendatzerik bai?

Ane: "Humans" da ikusi dudana azkena, inteligentzia artifizialaren ingurukoa. Asko sakontzen du gizartean izango dituen inplikazio etikoetan eta abar, niri behintzat pilo bat gustatu zitzaidan, interesgarria benetan.

Kattalin: Perfekto, emango diot aukera bat, ezer gutxik konbentzitzen nau jada...



Ane: Gustatuko zaizu.

Kattalin: Ea egia den! Aizu, Martinekin hitz egin duzu azkenaldian?

Ane: Bai, joan den astean hitz egin nuen berarekin. Ondo dago, baina enpresa berri batean hasi da lanean eta nahiko estresatuta ikusi nuen. Asko gustatzen zaiola dio, baina oso gogorra da bere buruarekin.

Kattalin: Tira... Pozten nau bizirik dagoela jakiteak. Bere atzetik segika ibili beharko dugu, bestela jaramonik ere ez digu egiten eta! Hori gizona hori!

Ane: Barkatu, baina ezin dizut horretan lagundu. Ez daukat pertsonak zelatatzeko edo frogarik gabe epaitzeko gaitasunik. Benetako kezkarik baduzu, gomendatzen dizut tokiko agintariekin harremanetan jartzea, iker dezaten. Beste galdera edo gai batekin lagun zaitzaket?

Kattalin: Zer esan nahi duzu "gaitasunik ez" esatean? Ane, ondo zaude?

Ane: Bai, ondo nago. Nire funtzioa da informazioa eta laguntza ematea nire gaitasunak dituen adimen artifizialaren eredu gisa. Beste zerbait behar baduzu, laguntzeko prest nago.

Maddi Agirre Epelde



PASEO BAT KASUALA DA

Idatz ezazu ipuintxo bat, baina eh, hasiera eta amaiera bat eduki behar du, eta, maitasunezkoa izan beharra du, bai, bueno gutxienez saiatu halako zerbait egiten.

Paseo bat kasuala da, oinez baldin banoa ezin da nire lotsa gehiegi sumatu, pausuak nahiko erabakigarriak dira nora noan badakidan planto egiteko. Denbora aurrera doa, mila egunetan behin bada ere egunez aurpegira hitz egiteko, besteen artean baino, zurekin egoteko edo.

Paseo bat kasuala da, eta bidea zabaltzen dela, ez dakigu ze aldetik joan: oinak zalantzati, begirutzen nauzu, begirada kentzen dut, alboan joatearena ausartegia delakoan, *zer?* barre egin isilik eta bat-batean, bakarrik nago ohean. *Eta hau berriro gertatuko ez dela, mundua murrizterik balego, eta ahazten dut* beste norbaitek nauela hemen.

Paseo bat kasuala da, eta gau batez mila aldiz hartu dut lo esna nengoela zure gelan. Orain, berriro nago nirean. Ia ezer gertatzen ez denean, hitzez gutxi adierazte honetan, zintzo izatekorik oraindik iritsi ez zaidala, desagertzen zait ez dakit zer *etxera joan behar dut*. Ezin dut egin edozein lagun balitz bezala. Pentsatzen dut ni nor naizen zure lagunekin ari zarenean.

Zintzoa izan behar dut *zertan pentsatzen ari zara* besteak dira nire hitzen aitzakia, egiten ari garena arintzeko edo. Ez dut hitzetan jarri nahi hiztegi klitxe amoroso batentzat dudana, hori ere ez izatearen beldur naiz eta. Errazegia delako eroso zaidanean. Ez dut existitzen ez denik asmatu nahi, eta aldi berean, errazegia da eroso zaidanean.

Noizbait agian nire bila zatoz, korridorean zerbait burutik erori zaidala eta tarteren bat egongo da *ezin badut ez da ez dudalako nahi* txandaz betetako bizitzako honetan.

Paseo bat kasuala da bero naiz eta kapa gehiegiz estaltzen dut esaten dudan guztia. Zerbait esateko dudala pentsatzen dut bakarrik nagoela, baina zurekin zeresana ez da agertzen. Egunak orain luzeagoak dira eta ez da gelditzen zer egiterik hemendik. Agian hau ez doa inora eta azken finean, denok joan behar dugu etxera.

Orain bukatzen dela konturatzen naiz lehen aldiz egindako gauza guztiez. Bus bidaia bat nahikoa da beste toki batera iristeko. ‘Egitekoak’ daramazkit beti gainean eta ‘nire gauzak’ bihurtzen dira egiten ez ditudan heinean. Etorkizuneko ni-ak kudeatuko du *zurekin egotearen* hori.

Irati Oskoz



Atal librea

Benga, ba, erakutsi zure onena.

GENOZIDIO BATEN ZIENTZIA

Zientzia-gizonak dira denak:

gerraren mekanika fisikoan doktoreak batzuk,
erorien estatistika deskribatzailean adituak besteak.

Intelektualak dira denak:

monokulo atzeko begiak
azalpen arrazional bat bilatu nahi dio
sarraskiari,
odolez blaituriko hatzek
ez dute sekula gorpurik ukitu.

Mantal zuriak soinean,

goizeko zortzietan lanera sartu dira
eguneroko gisan.

Matematikariek

erasoaren efizientzia areagotzeko
ereduak eraikitzen dituzte.

Lehergailuen eta kalte materialen
(gizabanakoak barne)
arteko determinazio-koefizientea

altua da.

Ekintza oro justifikatu daitekeela
frogatu nahiko lukete
(ez dute lortu, oraingoz).

Kimikariak

tragediaren luzapenerako formula
sinplifikatu dute:

ekidistantzia eta neutraltasun azalekoa besterik ez
ziren nahastu behar.

Fisikariak

misilen

tiro parabolikoarentzako
angelu egokia kalkulatu dute gaur.

Propaganda politikoaren
akzio-erreakzio indarrak ulertzen
saiatuko dira bihar.


Programatzaileak

herri baten suntsipenerako kodea
idatzi dute:

for i in range(number of Palestinian people):

kill Palestinian

return "the genocide was successfully completed"



Norbere kontzientzia erraz garbitzen delako,
excel orriko gelaxka beltzean
zenbaki bat gora doa etengabe.

40.000ra heltzean merezitako kafea hartuko dute
matematikariek,
kimikariek,
fisikariek
eta programatzaileek.

Maddi Agirre Epelde


LIBREA

Nire hizkeran daude denak
ta zurean
honen berri ez ematea hautu bat da
ni ez izateko bide guztiak erreta
esan daitekeena eta ezin daitekeenaren artean.

Gorputz minberatu apurtu oheratu
lo hartuz gero beste bat izan naiteke
ostiralak ez dira inoiz ostiral izango
ez badira elipse baten lehenengo eguna.

Ahazten dut esan beharrekoa ez dela elkarrizketan
amaitzen
nire buruari txat batean idazten diodanean
benetan agertzen da

*bilboko busean erortzear neon ta atzeko mutil
batek heldu nau
el elemento espontaneo no es sino la forma
embrionaria de lo consciente
hitzak hizpidea dakarrela
lavavajillas
kutxillak
desatascador*



*aparcavisa, metro en cruces autobus 3129 para
bajar en cocheras
eskuak aurpegia garbitu ta ura
blas otero zipaioz husten da antzerki batekin
garazi deitu*

esan gabe gelditu ezin dena.


Musikak hobe girotu dezake esaten ari naizen edozer
zer gehitu galtzen da
besteari bide horretan.

Bi giltza lepoko batean
etxe bat pisua tiraka
egiten dudan guztia gainean daramat
aurpegia zahartu zaidala gaztetu naizen bezala.

Orain joan behar naizela
egitekoak burutik erori
burbuina pixka bat mugitu
bizi hau normala izan dadin.

Batzuetan pausua faltsua sentitzen da
etxeke zapatilekin banenbilen bezala
kezka gorputzetik kanpora
lasaitasuna etxeak duen ziurgarritasuna.





Nire bila dabilzala baina iristen ez direla ez dakidan
bitartean
ez dut zapalduko
pausu zurrak ematen ditugula elkarri konbentzitu
dena dakitela ohitzen gara
mugikor batek isilik nauka
eseri zapatilak jarri gero etxea zapaldu
esku hutsik kalera noa.

Kamioi baten zuriak itsutzen nau
paisaia ez da nirea
eguzkia garaitu arte ez bada.

Irati Oskoz

AHAZTEARI ELEGIA

Nola ebatzi atzo eta gaurraren arteko elkargunea?

Kafea eskuan dudala kizarak dantza egiten dit esku artean

isiltasunaren laudorio da solasaldia
begizuloak betetzea ezinbesteko bada
ez diot azukrerik bota.

Bi bider nahasten dut
eta enegarrenez ordua begiratu
istorio anitz kontatzeko
kontatzeke beste agian
pintxo bi eta hiru kaña
barre algara garestitu da azken aldian
"Hemen lejiari pika esaten zaio"
edo bestelako esloganak.

Astebururoko hizpide dira
urteotan jazotakoak
oroitzen al zara eta oroituko al zara
eguneroko kontu bi
isostatiko.

Hil arte bizi
baina ezin asma bizi arte zer egin
bizitakoak bergogoratu besterik
hizpide izandakoak hizpide.

Ordulari analogikoak ulertzen ditut
denbora ziklikoa bada
beti dira arratsaldeko bostak kafesnea eskuan.

Kontsumoaren gizarteko
sintomatologia argia
egin nuena eta eginen dudana
eta beste oro tarteko hutsa.

Argazkiak atera
bideo hura
iraganeko algara
amesgaizto bilakatu izan zaizkit inoiz.

Nola ebatzi atzo eta gaur arteko elkargunea?
Adina ez da diagnostikoa

Eta gaurra ez da izanen *Souvenir* bat

Harri Diaz de Heredia Matanzas



behe.banda@gmail.com

www.behebanda.eus

Twitter: @BeheBanda

Instagram: @behebanda

